

ZUHAITZ EGUNA LARUNBAT ETA IGANDEAN



Bat lanean eta koadrila begira, iazko Zuhaitz Egunean. Ederra martxa!



Izan zen arbolak txuxerasko jarri zituenik.

Aurten 800 arbola aldatuko dituzte Aparrainen, Zuhaitz Egunean

■ Larunbatean, ikastetxeetako umeek aldatuko dituzte arbolak; igandean nagusiek ■ Bazkaritarako izena Mendiriz Mendin eman behar da, gaur ■ Antolatzailea udala da eta laguntzailea Mendiriz Mendi.

DATORREN larunbat eta igandean 29garren Zuhaitz Eguna egingo da Hernanin. Larunbatean gaztetxoek txanda izango da eta igandean nagusiena. 800 arbola jarriko dituzte Aparrainen, iaz *repoblatzen* hasitako leku beretsuan. Jarriko dituztenak bost arbola klase izango dira: haritzak 400, norteko haritzak 100, gaztainak 100, urkiak eta pagoak ere 100. Animatzen denak izango du non lan eginga!

150 bat gazte

Gazteek ikastetxean eman dute izena, baina, izena eman ez dutenek ere libre dute

agertzea. Kirol eskolarreko ekintza da Zuhaitz Egunekoa eta kirol patronatutik bideratu dituzte gazteak. 8-12 urte artekoak izango dira gehienak, baina, zenbat inguratuko diren ez da segurua, eguraldiak asko baldintzatzen baitu hori. Azken urteetako arrakasta ikusita, 100en bat lagun animatuko direla kalkulatu liteke.

Irteera goizeko 09:00etan izango dute, Atsegindegitik. Autobusetan Ugaldetxoraino joango dira, eta handik oinez Aparraina. Arbolak aldatu, hamaiketako egin eta berriz ere Ugaldetxora, autobusean sartu, eta bazkal ordurako etxera buelta.

Nagusiak igandean

Nagusien txanda igandean izango da. Aparraingo partean aldatuko dituzte arbola landareak hauek ere, baina, oinez bide luzexagoa eginda. Goizeko 08:00etan irtengo dira Gudarien plazatik. Aparraina mendiz joan eta lanak egin ondoren bazkaltzera Ugaldetxora jeitsiko dira.

Nahi duena agertu liteke, baina, bazkaltzera gelditu nahi duenak gaur du izena emateko azken eguna: 20:00-etatik 21:00-etara Mendiriz Mendiko bulegoan (☎ 943-332745). Bazkaltzera gelditzeko asmorik ez duenak ez du izena eman beharrik.

Joxe Legarretaren omenez

29garren Zuhaitz Egun hau Joxe Legarreta ereñotzuarraren omenez egiten den 16-garrena ere bada. Duela 29 urte, 1974an, Joxe Legarreta zena izan zen Zuhaitz Eguna sortu eta bultzatu zuena, Hernaniko herri lurretan bertako arbola klaseak sartzen hasteko. □

EREÑOTZUKO AUZO ELKARTEA

Etxebizitza eta gasari buruzko bilera, gaur

EREÑOTZUKO auzo elkarteak bilera du, gaur, udaleko hiri-gintza delegatuarekin. Etxebizitza berriei buruz eta Ereñotzuko *kaxkoko* gas hornikuntzari buruz ariko dira. Bilerak ikastolan da, gaur arratsaldean, 19:45etan. □

OSASUNARI BURUZKO ZIKLOA

'Emozioen mundua'

'SUMENDI' taldeko Mikel Picazak hitzaldia emango du gaur *Emozioen mundua*-ri buruz. Hitzaldia osasunari buruzko zikloaren barruan dioa. Gaur, 19:00-etan Biteri kultur etxean. □

SAN JUAN KANTAITA

Ikuskizuna prestatzeko bilera

SAN Joanetan Kantaita antolatu zuen taldeak bilera deitu du biharko. Bileraren helburua da datorren San Joanetan zer ikuskizun antolatu pentsatzea. Bilerak Biterin da, arratsaldeko 20:00-etan. Bilerak irekia da. □

Dantza ikastaroa

SAN Joan Konpartsak euskal dantza ikastaroa egiten ari du larunbatero. *Fandangoa, arin-arina, mutil-dantza, mutxikoak* eta abar. Dantza ikastaroa irekia da eta debalde. Biterin izaten da, larunbat goizetan: 11:30etan. □

GOIKO LASTOLA
SAGARDOTEGIA

Ereñotzu auzoa
-Hernani-

Eguerditan
irekita.

Bakailu kaxuelak
enkarguz.

943 553272

GALARRETA JAI-ALAI FRONTOIA
Larunbatean, binakako txapelketako finala:
ALTUNA I-EIZAGIRRE / ZEBERIO II-IRIARTE

GAUR ARRATSALDEKO 16:00 ETATIK AURRERA ERREMONTA JAIALDIA:

- ⊙ 1. partidua: MATXIN III - ETXEBERRIA II / ZEBERIO III - AIZPURUA II
- ⊙ 2. partidua: EZKURRA - ETXEBERRIA III / ALTUNA II - LIZASO
- ⊙ 3. partidua: IÑIGO - AIZPURU / URRETABIZKAIA I - ETXABE
- ⊙ 4. partidua: ZEBERIO I - EKIZA / IRIBARREN - MENDIZABAL

DENDA
ARKA

OTSAILEAN

ATE eskaintza. Oraintxe duzu
ATEAK berritzeko aukera.

Preziorik onenak *Arkan*.

Eskaera hilabete honetan eginez
gero %7ko deskontua.

ARKA DENDA -KARDABERAZ KALEA 41 ☎ 943 33 34 87-



Plazaren erdian eman zitzaion su sardinari. Apenas jateko moduan geratu zen!

Sardina sutan erre, eta bukatu dira aurtengo inauteriak

■ Jende asko ibili da aurtengo edizioan, gehienbat umeak ■ Aurtengoari bukaera astearte arratsaldean eman zitzaion, sardinak kalean paseatu eta plazan erreta.

AURTENGO inauteriek ere eman dute berea. Tolosa eta beste hainbat herrietako mugimendua medio itzalean gelditzen dira Hernanikoak; baina, ezin esan aurtengoan jenderik ibili ez denik eta mozarrotu ez


denik ere ez, batez ere larunbat gauean. Egitaraua gaztetxoek begira osatu da gehien bat, eta berak izan dira han eta hemen disfrazatu eta festan parte hartu dutenak. Horiez gain, urteroko inkondizionalak ere ibili dira

kaleak alaitzen

‘Entierro de la sardina’ Urteroko ohitura da sardina erretzea inauteriak bukatzeko. Aurten ere suak bukatu dituzte. □



Gazte koadrila, larunbat gauean mozarrotuta.



Aralar tabernako ‘Pepe’.



1953ko kintoak Txantxangorri, igandean. (Argazkia: Biyok)

1953ko kintoez urteko bazkaria izan zuten igandean. Urtero elkartu eta egun pasa egiten dute 1953ko kintoez. Aurten ere meza eta hamaietakoia izan dituzte eguna hasteko. Bazkaritan 30en bat lagun elkartu ziren.

■ HITZ BITAN



Mariano Ferrer ordu betez aritu zen hizketan.

✓ MOLOTOFF IRRATIA -IRRATI ASTEA-

Mariano Ferrer-ek kazetari izateari buruz hitz egin zuen. Molotoff Irrati Asteari Mariano Ferrer-en elkarriketak eman zion hasiera, astelehenean. Herri irratiako hizlariak bere karrera profesionala kontatu zuen: non ikasi zuen, Loiola Irratiako kontuak, Egin egunkariako zuzendari izan zen garaioak... Ordu betez aritu ziren berriketan eta datorren astean errepikatuta botako dute: astelehenean 22:00etan, F.M. 99.2.

Irrati Astea, atzo eta herenegun bi hitzaldi izan ziren. Gaur mahai ingurua izango da Tipi Ttapa, Hernaniko Kronika eta Molotoff irratiarekin, 19:30etan Biteri kultur etxean. Bihar *El Show de Truman* pelikula 22:30etan Biterin. Azkenik, Larunbatean *Barrikotea* Arizmendi jatetxean Irrati Asteari bukaera emateko. Izena emateko deitu: ☎ 943-331731

✓ 3/4 PLATAFORMA

Kontzentrazioa gaur. Hiru laurdenak beteta dauzkaten preso askatasuna eskatzeko kontzentrazioa egiten du hama-bostean behin 3/4 plataformak. Hernanin bost preso daude hiru laurdenak beteta. Kontzentrazioa, gaur, 19:00etan Plaza Berrian.

✓ ODOL EMAILEAK

Otsailean 80 lagunek eman dute odola. Hileroko odol ematea egin dute otsailean ere. Larogei lagunek eman dute. Emailak berriak bost izan dira eta organu emailak bi. □

👉 JASOTA BEZALA

ZURE TXAKURRAK MAITE NAU.

Zure txakurrak maite nau eta horregatik nire gainera jauzi egin du aurkitzen dudako bakoitzean. Zu, pozik, noski. Izan ere, hain polita eta alaia da!

Zure txakurrak maite nau eta horregatik lerdez bustitzen dizkit prakak eta oinetakoak aurkitzen dudako bakoitzean. Eta harategiko poltsa baldin badaramat, muturra sartu ohi du barrura: usaina gus-

tatzen omen zaio. Zu, pozik, noski. Ehiza-txakurra da eta!

Zure txakurrak maite nau eta gaur, maiteminduen eguna izanik, bere oparitxo utziko dit espaloian, erdi erdian, nik ondo ikusteko moduan. Eskertzekoa da nitaz gogoratu izana, baina ez dut oparitxo jasoko. Ez dut merezi. Jabea izanda, gehiago merezi duzu zeuk nik baino.

Jose Luis Gómez

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

- ▶ Taxiak: 943 550093
- ▶ Udaltzaingoa: 943 333288
- ▶ DYA: 943 464622
- ▶ Autobusak: 943 556662
- ▶ Anbulatorioa: 943 557750
- ▶ Jokalari anonimoak 943 331103

☎ FARMAZIAK

- ▶ Egunez: Bulnes Etxeberri. Florida auzoa. ☎ 943 557738
- ▶ Gaez: Elizondo Andoain. Zumea 30 ☎ 943 592629

IRRATIAK

(F.M. 99.2) 11:40: Edorta Aranaren hitzaldia: *Euskal esparru komunikati-boaren garrantzia* 12:00: Sumendiko Mikel Picazarekin Biteriko osasunari buruzko hitzaldiaz 17:00: *Burrumbada* irratiako gazteenen saioa.

Hernaniko Kronika

Zure publizitatea hemen
943 330 899

ZINGI-ZANGA
Jatetxea
Egunero menuak.
Afariak enkarguz.
Ostiraletan mus txapelketa.
Florida 54
Tel: 943 33 03 97

OIALUME ZAR SAGARDOTEGIA



943 55 29 38
OIALUME AUZO